

Donostia, 2016ko uztailaren 6a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### MOZIO ARRUNTA, KARLOS I.aren KALEKO BIDEA IXTEARI BURUZKOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udal Batzarraren Araudi Organikoko 98. artikuluekin bat etorritik, ondorengo MOZIOA aurkeztu du UDAL BATZARREAN EZTABAIDATZEKO, Karlos I.aren kaleko bide proba moduan ixteari buruz.

#### JUSTIFIKAZIOA

Karlos I.aren kaleko bidea kentzea da oraindik ere Amara auzoko bizilagunen aldarrikapen nagusienetako bat. Udalaren eta Aldundiaren gobernuetako kide diren EAJk nola PSEk, udal eta foru hauteskundeetarako programetan eraman zuten Karlos I.aren kaleko bidea kentzea. Hala ere, ez dirudi gobernu horietako inork hauteskunde programa betetzeari begira inolako jarduketarik gauzatzeko asmorik duenik.

Nolanahi ere, beharrezkoa iruditzen zaigu trafikoa hirian nola bideratuko litzatekeen jakitea bide hori behin betiko desagertu aurretik, trafikoaren parte batek Martuteneko biribilgunetik barrena sartu beharko lukeelako hirira eta hortik barrena irten ere. Horrek, biribilgunea handitu behar izatea ekarriko luke, egunaren une askotan orain ere trafikoa geldituta egoten delako, eta gauza ez da arazoa auzo batetik beste batera eramatea, Amaratik Martutenera, hirian trafikoak sortzen dituen arazoei erabateko irtenbidea bilatzea baizik.

#### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udal Batzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Udalaren laguntzarekin Karlos I.aren kaleko bidetik sartzeko eta irteten den trafikoa modu esperimentalean itxi dezala, hiriaren gainerako sarbide/irteeretan izango lukeen eragina ezagutzeari begira.

Sin. Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.